

LEGAZPIKO UDALA

Iragarkia

Legazpiko Udal Korporazioaren Osoko Bilkurak, joan den 2014ko otsailaren 26an egin zuen ohiko bileran, hasierako onespena eman zion «Konpost-guneak erabiltzeko erregimen juridikoa eta baldintzak arautzeko Udal Ordenantzari».

Jendeaurreko informazio-epean alegazio bat aurkeztu zen eta 2014ko apirilaren 29an eginiko osoko bilkuran behin betiko onespena eman zitzaion Araudiari alegazioa partzialki onartuz, beraz, aipatu arudia argitaratu egiten da.

Legazpi, 2014ko maiatzaren 5a.—Alkatea. (4225)

KONPOST-GUNEAK ERABILTZEKO ERREGIMEN
JURIDIKOA ETA BALDINTZAK ARAUTZEKO
UDAL ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Legazpiko Udalak dituen lehentasunen artean hondakinen sorkuntzaren prebentzioa dago, baita haien kudeaketa moduetan hobekuntzak ezartzea ere. Hori islatuta agertzen da Udalak Gipuzkoako Hiri Hondakinen prebentzioari buruzko Dekalogoaren sinaduraren eta Tokiko Agenda 21eko eta Klima Aldaketaren Aurkako Planen onarpenaren bidez. Dokumentu horietan guztietan prebentziorako eta hondakinen kudeaketa hobetzeko neurriak ezartzen dira.

Aurreikusitako neurrien artean etxeetako biohondakinen auto-konpostaje eta auzo-konpostaje jarduerak ezartzea dago. Ekimen horiek etxetik eratorritako biohondakinen kudeaketa moduak dira eta, beraz, hondakinen bilketa orokorraren zerbitzuaren osagarri. Hortaz, kudeaketa modu honek hondakin kopuru bat zerbitzu honetatik kentzea ahalbidetzen du. Horren abantaila batzuk ondorengoak dira:

— Materia organikoaren zikloa ixten da, hondakinei baliabide gisa balioa emanez.

— Zikloa udalerrian bertan ixten denez, biohondakin horiek garraiatzea ez da beharrezkoa eta tratamendu-plantetara ez da hainbeste hondakin eramaten.

— Lortutako konposta lurrian erabili daiteke beste ongari kimikoen ordeztu eta honen bidez lurzuaren emankortasuna, egitura eta funtzionalitatea hobetzen da.

— Eragin positiboa du ingurumen mailako herritarren sensibilizazio eta prestakuntzari dagokionez, izan ere, pertsona bakoitzak norberak sortutako hondakinaren zikloaren prozesu osoan hartzen du parte.

— Gainera, hondakinen kudeaketa modu honek onura kulturalak eta sozialak ekartzen ditu, eta herriko beste ekimen batzuekin uztartu daiteke herritarren parte hartzea sustatuz eta herri bizi bat lortuz.

2012an, etxeko biohondakinen konpostajearen garrantziaz jabetuta, auzo-konpostajearen proiektu pilotu bat abian jarri zen Legazpin. Proiektu horretan, auzo-konpostajerako gune bat eraiki zen udal lurretan eta gaur egunera arte 19 familia daude bertan parte hartzen. Horrez gain, hainbat herritarrak auto-konpostajea egiten ari dira baserri eta eremu pribatuetan.

Hemendik aurrerako pausua, proiektua zabaltzea da eta modu boluntarioan parte hartu nahi duen Legazpiar orori bere etxeko biohondakinak kudeatzeko aukera ematea. Guzti honek funtzionamendu egokia izan dezan, gune horien kudeaketa egokia arautu behar da eta, era berean, konpost eginez beren etxe-etako biohondakinak kudeatzeko prest dauden herritarren esku-bideak eta betebeharrak arautu behar dira.

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

Anuncio

El Pleno del Ayuntamiento de Legazpi en sesión ordinaria celebrada el día 26 de febrero de 2014 aprobó con carácter inicial la «Ordenanza Municipal Reguladora del régimen jurídico y de las condiciones de utilización de los puntos de compostaje».

Durante el plazo de información pública se presentó una alegación y en la sesión plenaria de 29 de abril de 2014 se aprobó definitivamente el texto de la Ordenanza con la estimación parcial de la alegación, por lo que se procede a su publicación.

Legazpi, a 5 de mayo de 2014.—El Alcalde. (4225)

ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DEL
REGIMEN JURIDICO Y DE LAS CONDICIONES DE
UTILIZACION DE LOS PUNTOS DE COMPOSTAJE

EXPOSICION DE MOTIVOS

El ayuntamiento de Legazpi tiene entre sus prioridades la prevención en la generación de residuos y la mejora de su gestión. Este hecho queda reflejado en la firma del Decálogo por la Prevención de Residuos Urbanos de Gipuzkoa y en la aprobación de los planes de Agenda Local 21 y de Lucha contra el Cambio Climático. En todos estos documentos se establecen medidas para la prevención y también para la mejora de la gestión de los residuos.

Entre las medidas previstas se encuentra la implantación de la actividad del autocompostaje y del compostaje colectivo de los biorresiduos de origen doméstico. Esas iniciativas son modos de gestión de los biorresiduos generados en los domicilios y son complementarias al servicio general de recogida de residuos. Por tanto, este modo de gestión posibilita detraer de este servicio una cierta cantidad de residuos. Estas son algunas de las ventajas de ello:

— Se cierra el ciclo de la materia orgánica, al dar valor al residuo como recurso.

— Al cerrar el ciclo en el mismo municipio, no es necesario el transporte de estos biorresiduos y se derivan menos a las plantas de tratamiento.

— El compost producido puede ser utilizado como abono en vez de otros abonos químicos y por tanto, se mejora la fertilidad, estructura y funcionalidad de la tierra.

— Tiene un efecto positivo en la sensibilización y formación de la ciudadanía con respecto al medio ambiente ya que cada persona participa en el proceso de gestión de los residuos que ella misma genera.

— Además, esta forma de gestión de residuos aporta beneficios culturales y sociales y se puede alinear con otras iniciativas del municipio fomentando la participación ciudadana y logrando un pueblo más activo.

Entendiendo la importancia del compostaje de los biorresiduos domésticos, en el año 2012 en Legazpi se puso en marcha un proyecto piloto de compostaje colectivo. En ese proyecto se habilitó en terreno municipal un punto para el compostaje colectivo en el que hasta el momento, están participando 19 familias. Además, algunos ciudadanos y ciudadanas están realizando autocompostaje en caseríos y otros espacios privados.

El siguiente paso es ampliar esta iniciativa y ofrecer la oportunidad de gestionar sus residuos domésticos mediante compostaje a todo legazpiarra que de forma voluntaria desee hacerlo. Para que todo esto funcione debidamente, es necesario regular la gestión adecuada de esos espacios, regulando asimismo los derechos y deberes de aquellos ciudadanos y ciudadanas dispuestos a gestionar sus biorresiduos domésticos mediante compostaje.

Ordenantza hau idazteko, estatu mailan eta erkidegoan indarrean dauden ondoko araudiak aztertu dira.

— 3/1998 Legea, otsailaren 27ko, Euskal Herriko ingurumena babesteko lege orokorra.

— 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa.

— MAM/304/2002 Agindua, azaroaren 8koa, balioztatze-eta ezabatze-lanak eta hondakinen Europako zerrenda argitara ematen dituen.

— 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

— 1528/2012 Errege-dekretua, azaroaren 8koa, animalia-azpiproduktuei eta giza kontsumorako ez diren produktu deribatuei aplikagarriak zaizkien arauak ezartzen dituen.

— 506/2013 Errege-dekretua, uztailaren 28koa, produktu ongarriei buruzkoa.

Aipatu araudiez gain, Europako araudia ere aztertu da (1069/2009 Araudia).

Azkenik, auzo-konpostajea eta auto-konpostajea arautzen dituzten nazioarteko eredu eta araudi desberdinak aztertu dira.

I KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea, Legazpin sortutako etxeetako biohondakinen gertutasuneko konpostajea arautzea da, jarduera horren araubidea, konpost-guneen kokalekuetarako baldintzak eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak ezarriz. Horretarako, hurrengo puntu hauek hartuko dira kontuan:

— Prozesu horiek burutuko direneko guneen instalazioa, mantentzea, erabilera eta jarraipena.

— Lortutako konpostaren kalitatearen arabera erabilera.

— Konpostaje prozesuan boluntarioki parte hartzen duten herritarren eskubideak eta betebeharrak.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Araudia ondorengo esparruetan aplikatuko da:

— Etxeetako jatorria duten biohondakinen gertutasuneko konpostaje prozesua modu aerobio eta termofiloan eta tamaina txikiko konpostaje instalazioetan egiten denetan.

— Udal lur publikoan edo eremu pribatuatan jartzen diren konpost-guneetan eta haiek osatzen dituzten elementuetan.

— Auto-konpostaje zein auzo-konpostaje jardueretan parte hartzen duten pertsonetan.

3. artikulua. Definizioak.

Auto-konpostajea edo etxeko konpostajea: Etxean, era bakarrean, biohondakinak konpostaje prozesuaren bidez kudeatzea da.

Auzo-konpostajea edo konpostaje kolektiboa: Hainbat etxeek gune komun batean, biohondakinak konpostaje prozesuaren bidez kudeatzea da.

Biohondakina: Lorategi edo parkeetako hondakin biodegradagarriak, etxeetan, jatetxeetan, gizarte zerbitzuetan eta txikizko salmenta-establezimenduetan sortutako elikagai eta sukaldeko hondakinak, baita elikagaiak prozesatzeko instalazioetatik eratorritako hondakinak ere. (2011/22 Legea).

Para la redacción de esta ordenanza, se ha estudiado la siguiente normativa estatal y autonómica vigente.

— Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de protección del medio ambiente del País Vasco.

— Ley 7/2012, de 23 de abril, de modificación de diversas leyes para su adaptación a la Directiva 2006/123/CE, de 12 de diciembre, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a los servicios en el mercado interior.

— Orden MAM/304/2002, de 8 de febrero, por la que se publican las operaciones de valorización y eliminación y la lista europea de residuos.

— Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados.

— Real Decreto 1528/2012, de 8 de noviembre, por el que se establecen las normas aplicables a los subproductos animales y los productos derivados no destinados al consumo humano.

— Real Decreto 506/2013, de 28 de julio, sobre productos fertilizantes.

Además de la normativa mencionada, también se ha estudiado la normativa europea (Reglamento 1069/2009).

Además se ha analizado diferentes modelos y normativas de carácter internacional que regulan tanto el compostaje comunitario como el autocompostaje.

CAPITULO I DISPOSICIONES DE CARACTER GENERAL

Artículo 1. Objetivo.

El objetivo de esta ordenanza es regular el compostaje de proximidad de los biorresiduos domésticos generados en Legazpi, estableciendo su régimen, condiciones de emplazamiento de los puntos de compostaje, y derechos y deberes de los/las usuarios/as. Para ello, se tendrán en cuenta los siguientes puntos:

— La instalación, mantenimiento, utilización y seguimiento de los espacios donde se lleve a cabo dicho proceso.

— La utilización del compost en función de su calidad.

— Los derechos y deberes de los/las ciudadanos/as que participan de manera voluntaria en el proceso de compostaje.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

La normativa será de aplicación en los siguientes ámbitos:

— En los procesos de compostaje de proximidad de los biorresiduos de origen doméstico, cuando éstos se realicen mediante procesos biológicos aerobios y termófilos y en elementos de compostaje de pequeño tamaño.

— En los puntos de compostaje colectivo instalados tanto en suelo público como privado, así como en los elementos que los componen.

— A las personas participantes en los procesos de autocompostaje y compostaje colectivo.

Artículo 3. Definiciones.

Autocompostaje o compostaje doméstico: Es la gestión de los biorresiduos en el propio domicilio, de forma individual y mediante un proceso de compostaje.

Compostaje colectivo o comunitario: Es la gestión de los biorresiduos por parte de varios vecinos y vecinas en un espacio común mediante compostaje.

Biorresiduo: Residuo biodegradable de jardines y parques, residuos alimenticios y de cocina procedentes de hogares, restaurantes, servicios de restauración colectiva y establecimientos de venta al por menor; así como, residuos comparables procedentes de plantas de procesamiento de alimentos. (Ley 22/2011).

Egituretzailea: Biohondakin lehorra, normalean parke eta lorategietatik lortutakoa (inausketa adaxkak, hosto lehorrak, las-toa eta landare hondakinak). Egituretzaileak karbonoa atxikitzen dio konpostaje prozesuari, baita hezetasuna kendu ere.

Etxeko hondakinak: Etxeko jardueren bidez sortutako hondakinak. Zerbitzu eta industrietan sortutako antzeko hondakinak ere etxeko hondakinak dira. (2011/22 Legea).

Gertutasuneko konpostajea: Boluntarioki egiten den eta hondakina sortzen den tokitik gertu kudeatzen den konpostajea; auzo-konpostajea eta auto-konpostajea hartzen ditu barnean.

Hondakina: Edukitzaileak bota edo bota nahi duen edo behar duen edozein substantzia edo objektu da. (2011/22 Legea).

Konposta: Banatuta bildutako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko aerobio eta termofiloaren bidez sortutako ongarri organikoa. Ez da konposta hondakin nahastuen tratamendu biologiko mekanikoa egiten duten instalazioetan lortutako material organikoa, hau material bioegonkorra deituko da. (2011/22 Legea).

Konpost-gailua: Konpostaje prozesua egiteko ontzia da.

Konpost-gunea: Auzo-konpostaje prozesua egiteko instalatzen den gunea da. Gune hau konpost-gailuz, konpostaje prozesua egiteko lanabesez eta prozesua aurrera eramateko beharrezko eremuz dago hornituta.

Konpostajea: Biohondakinen deskonposizio kontrolatuaren bidez konposta lortzeko prozesu biologiko aerobio eta termofiloa da (2011/22 Legea).

Ondorengo faseak dauzka:

— Deskonposizio-fasea: Fase hau mikrobio jarduera altuagatik ezagutzen da. Onddoek eta bakteriek metatutako materiala transformatzeko dute eta tenperatura oso altuak lortzen dira, 70.°C arte.

— Heltze-fasea: Mikroorganismoek behin materia deskonposatuta zomorroek (kakalardo, zizare) egonkortu egiten dute materia hori eta azken hondarrak txikitzen dituzte.

Konpost maisua: Konpost-gune bakoitzean konpostaje prozesuaren jarraipenaz arduratuko den pertsona da.

Biohondakin-ontzia: Etxeetan norberak bere biohondakinak biltzeko ontzi txikia da.

II KAPITULUA KONPOST-GUNEEN INSTALAZIOA ETA MANTENTZEA

4.artikulua. Konpost-gune ereduak.

1. Konpost-guneek ondorengo atalak izango dituzte gutxienez:

- Hondakinak uzteko eta deskonposatzeko gunea.
- Heltze-gunea.
- Egituretzailea uzteko gunea.
- Lanabesak uzteko gunea.

2. Legazpiko Udalak ondorengo konpost-gune ereduak definitu ditu udalerrian ezartzeko. Hala ere, eredu horiek egokitu ahal izango dira etorkizunean etorriko diren berrikuntzen arabera.

Estrukturante: Biorresiduo seco, habitualmente conseguido en parques y jardines (ramas de poda, hojas secas, paja y restos de plantas). El estructurante aporta carbono al proceso y reduce la humedad.

Residuos domésticos: Residuos generados en los hogares como consecuencia de la actividad doméstica. Se consideran también residuos domésticos los similares a los anteriores generados en servicios e industrias. (Ley 22/2011).

Compostaje de proximidad: Proceso de compostaje que se realiza cerca del lugar en el que se producen los residuos y que se realiza voluntariamente por las personas que producen los residuos; incluye el compostaje colectivo y el autocompostaje.

Residuo: Cualquier sustancia u objeto que su poseedor desee o tenga la intención o la obligación de desechar. (Ley 22/2011).

Compost: Abono orgánico obtenido a partir del tratamiento biológico aerobio y termófilo de residuos biodegradables recogidos separadamente. No se considerará compost el material orgánico obtenido de las plantas de tratamiento mecánico biológico de residuos mezclados, que se denominará material bioestabilizado. (Ley 22/2011).

Compostador: Recipiente donde se lleva a cabo el proceso de compostaje.

Punto de compostaje: Lugar donde se realiza el proceso de compostaje colectivo. Este punto está debidamente acondicionado para llevar a cabo el proceso de compostaje y en él encontramos el compostador y los utensilios necesarios para realizar el compostaje.

Compostaje: Proceso biológico aerobio y termófilo para conseguir compost mediante la descomposición controlada de biorresiduos. (Ley 22/2011).

Las fases del proceso son las siguientes:

— Fase de descomposición: Esta fase se reconoce por la elevada actividad microbiana. Los hongos y bacterias transforman el material acumulado consiguiendo temperaturas muy altas de hasta 70.°C.

— Fase de maduración: Una vez que los microorganismos han descompuesto la materia orgánica, los insectos (escarabajo, lombriz,) la estabilizan y la desmenuzan.

Maestro/a compostador/a: Es la persona responsable del seguimiento del proceso de compostaje en cada punto de compostaje.

Recipiente para el biorresiduo: Recipiente pequeño para depositar los biorresiduos generados en casa antes de llevarlos al compostador.

CAPITULO II IMPLANTACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LOS PUNTOS DE COMPOSTAJE

Artículo 4. Modelos de puntos de compostaje.

1. Los puntos de compostaje dispondrán como mínimo de las siguientes partes:

- Zona de depósito y descomposición de residuos.
- Zona de maduración.
- Zona para dejar el estructurante.
- Zona para guardar los utensilios.

2. El Ayuntamiento de Legazpi ha definido los siguientes modelos de puntos de compostaje a implantar en el municipio. Estos modelos podrán ser adaptados en función de las innovaciones que puedan irse produciendo.

A) Konpost-gailuz osatutako konpost-gune txikia: 300 edo 700 litroko bi konpost-gailuz dago osatuta gune hau, beraz gehienez 1,4 m³ ditu. 1-30 pertsonen osatutako taldeari eskaintzen dio zerbitzua. Horrez gain, lanabesak eta egituratzailea gordetzeko beste ontzi bat dauka guneak. Gutxi gorabeherako dimentsioak: 3 m luzera, 2 m zabalera eta 1,5 m altuera.

B) Konpost-gailuz osatutako konpost-gune handia: 700 litroko gehienez 6 konpost-gailuz dago osatuta gune hau, beraz gehienez 4,2 m³ ditu. 30-90 pertsonen osatutako taldeari eskaintzen dio zerbitzua. Horrez gain, lanabesak eta egituratzailea gordetzeko beste ontzi bat dauka guneak. Gutxi gorabeherako dimentsioak: 7 m luzera, 4 m zabalera eta 1,5 m altuera.

C) Etxolak: 4 m³ gehienezko bolumeneko egurrezko etxola bakar batez dago osatuta gune hau. 60-120 pertsonen osatutako taldeari eskaintzen dio zerbitzua. Etxolan bertan gordetzen dira lanabesak eta egituratzailea. Etxolaren gutxi gorabeherako dimentsioak: 5 m luzera, 4 m zabalera eta 1,5 m altuera.

3- Konpost-gailuak eta etxolak itxita egongo dira, baimenik ez duten pertsonen erabil ez ditzaten.

5. artikulua. Konpost-guneen kokapena.

1. Lehenetsuz eremu berdeetan ezarriko dira konpost-guneak, inoiz ez espaloi eta oinezkoen guneetan, natur babesarako guneetan edo edateko uraren hartze puntu baten babeserako perimetroan.

2. Kokapenerako baldintzak:

A. Bizilekueetatik eta beste eremu sentikorretatik (osasan etxeak, ur ibilguak, merkataritza eremuak) ondorengo distantzia minimoak bete beharko dituzte konpost-guneek:

— B motatako konpost-guneak: Gutxienez 5 metro.

— C motatako konpost-guneak: Gutxienez 10 metro.

B. Konpost-guneak ingurunean integratuta geratzea zainduko da.

3. Aipatu konpost-guneak eremu publikoetan nahiz pribatuetan ezarri ahal izango dira. Eremu pribatua denean baimena eskatuko zaio Udalari, udalerrian indarrean dagoen hirigintza-legeriak dioena betez.

4. Sustatzaileak eskaria aurkeztu beharko du udaletxean jarri nahi den konpost-gunearen kokalekua adieraziko duen planoarekin batera. Udal baimenak ez du zerikusirik konpost-gunea ezartzeko legeria zibilak, komunak edo bereziak beharrezkotzat joko dituzten akordioekin. Aurkeztutako dokumentazioa eta sustatzaileari eskatuko zaizkion agiri osagarriak ikusi ondoren, organo eskudunak konpost-gunea jartzeko baimena ematen duen ala ez erabakiko du edo udalerrian indarrean dauden hirigintza-ordenantzen arabera baldintza batzuk ezarritu erabakiko du.

5. Saihestu egingo da udal lur publikoan auto-konpostajerako bakarkako konpost-gailuak jartzea.

6. Konpost-gunerako sarbidea suhiltzaileak eta erreskaterako zerbitzuak esku-hartzeko moduan egongo da diseinatuta. Sarbiderako errepidea garbi eta trafikoa eragotzi dezakeen edozein objektuz libre mantenduko da.

6. artikulua. Konpost-guneak zaintzeko lanak.

1. Zaintza lanetan sartzeko dira konpost-guneen eta hau osatzen duten elementuen kontserbazio, konponketa eta garbi mantentzeko lanak.

A) Puntos de compostaje pequeños compuestos por compostadores: Este punto está compuesto por dos compostadores de 300 o 700 litros, por tanto tiene un volumen máximo de 1,4 m³. Da servicio a un grupo de 1 a 30 personas. Además, el punto tiene otro recipiente para guardar los utensilios y el estructurante. Las dimensiones aproximadas de este tipo de punto de compostaje son: 3 m de largo, 2 m de ancho y 1,5 m de alto.

B) Puntos de compostaje grandes compuestos por compostadores: Este punto está compuesto como máximo por seis compostadores de 700 litros cada uno, por tanto tiene un volumen máximo de 4,2 m³. Da servicio a un grupo de 30 a 90 personas. Además, el punto tiene otro recipiente para guardar los utensilios y el estructurante. Sus dimensiones aproximadas son: 7 m de largo, 4 m de ancho y 1,5 m de alto.

C) Casetas: Este punto está compuesto por una única caseta de madera con un volumen máximo de 4 m³. Da servicio a un grupo de 60 a 120 personas. Los utensilios y el estructurante se guardan en la misma caseta. Sus dimensiones aproximadas son: 5 m de largo, 4 m de ancho y 1,5 m de alto.

3. Tanto los compostadores como las casetas estarán cerradas para evitar que personas no autorizadas puedan acceder a ellos.

Artículo 5. Ubicación de los puntos de compostaje.

1. Los puntos de compostaje se instalarán prioritariamente en espacios verdes, nunca en las aceras y en zonas peatonales, zonas de protección de la naturaleza o perímetros de protección de captaciones de agua.

2. Requisitos para la ubicación:

A. Los puntos de compostaje deberán como mínimo mantener las siguientes distancias a zonas habitadas y otros espacios sensibles (centros de salud, cauces de ríos, zonas comerciales,):

— Puntos de compostaje del tipo B: 5 metros, como mínimo.

— Puntos de compostaje del tipo C: 10 metros, como mínimo.

B. Se velará para que los puntos de compostaje queden integrados en el entorno.

3. Los puntos de compostaje mencionados anteriormente se podrán implantar tanto en suelo público como privado. En este último caso se requerirá autorización municipal en aplicación de la legislación urbanística vigente en el municipio.

4. El promotor deberá presentar una solicitud al Ayuntamiento junto con un plano de emplazamiento del futuro punto de compostaje. La autorización municipal es independiente de los acuerdos que la legislación civil, común o especial, establezca como necesarios para la implantación del punto de compostaje. A la vista de la documentación aportada o de la complementaria que se requiera al promotor, el órgano competente decidirá si autoriza o deniega la implantación, o la somete a una serie de condiciones en función de las ordenanzas urbanísticas vigentes en el municipio.

5. Se evitará colocar en suelo público municipal compostadores individuales para el autocompostaje.

6. La entrada a los puntos de compostaje estará diseñada para que los bomberos y servicios de rescate puedan intervenir fácilmente. El camino de entrada se mantendrá limpio y libre de cualquier objeto que pueda impedir el acceso.

Artículo 6. Cuidado de los puntos de compostaje.

1. El cuidado incluye los trabajos de conservación, reparación y limpieza de los puntos de compostaje y los elementos que lo componen.

2. Debe katuta daude konpost-guneak, hau osatzen duten elementuen eta bertako materiala honda lezakeen jarduera oro, baita arriskua sortu edo erabiltzaileen lana zaildu lezakeen edozein manipulazio egitea ere.

7. artikulua. Ardurak.

1. Legazpiko Udala izango da konpost-guneak ezartzeak ekarriko dituen zeregin teknikoaren arduraduna (udalerrian konpost-guneak non kokatuko diren planifikatzea eta konpost-guneak onartzea eta egokitzea); modu berean, konpost-gunea osatzen duten elementuen kontserbazio eta konponketa lanen arduraduna izango da.

2. Konpost-guneak garbi mantentzea eta higiene-baldintza egokietan mantentzea konpost-gune horien erabiltzaileen ardura izango da.

III KAPITULUA
KONPOSTAJE PROZESUAREN GARAPENA
ETA JARRAIPENA

8. artikulua. Materialak.

1. Izena eman duten pertsonen prozesua egiteko beharrezko materiala banatuko zaie.

2. Auto-konposta egiteko materiala (konpost-gailua, aireztagailua eta biohondakin-ontzia) Sasieta Mankomunitateak banatuko du.

3. Auzo-konposta egiteko biohondakin-ontzia eta aireztagailua Sasieta Mankomunitateak banatuko du. Aldiz, Udalak konpost-gunea egokituko du eta prozesurako beharrezko gainontzeko materiala jarriko du.

9. artikulua. Konpost-gailuetan konpostatu ahal izango diren etxeko biohondakinak.

Konpostajerako instalazioetan ondorengo taulan (LER kodearekin) azaltzen diren etxeko biohondakinak konpostatu ahalko dira:

2. Queda prohibida toda actividad que pueda dañar los puntos de compostaje, los elementos que lo componen y el material allí guardado; igualmente queda prohibida cualquier manipulación que pueda poner en riesgo o dificultar el trabajo de los usuarios y usuarias.

Artículo 7. Responsabilidades.

1. El Ayuntamiento de Legazpi será el responsable de los trabajos técnicos asociados a la implantación de los puntos de compostaje (planificar la ubicación de los puntos de compostaje en el municipio y aprobar y adecuar los puntos de compostaje) así como de la conservación y reparación de los elementos que los componen.

2. El mantenimiento de los puntos de compostaje en las condiciones de higiene y limpieza adecuadas es responsabilidad de los usuarios y usuarias los mismos.

CAPITULO III
DESARROLLO Y SEGUIMIENTO DEL
PROCESO DE COMPOSTAJE

Artículo 8. Materiales.

1. Todas las personas que se inscriban para participar en el compostaje recibirán el material necesario para llevar a cabo el proceso.

2. El material para hacer autocompostaje (compostador, aireador y recipiente para el biorresiduo) será suministrado por la Mancomunidad Sasieta.

3. En el caso del compostaje colectivo, la Mancomunidad Sasieta suministrará los recipientes para el biorresiduo y el aireador, mientras que el Ayuntamiento adecuará el punto de compostaje y proporcionará el resto de materiales necesarios.

Artículo 9. Tipos de biorresiduos domésticos que podrán ser compostados en los compostadores.

En los puntos de compostaje podrán compostarse los biorresiduos domésticos que aparecen en la siguiente tabla (con el código LER):

200101 / Papera eta kartoia:	Tintarik gabeko sukaldeko papera (detergente edo beste xaboeekin zikindu gabea)
200108 / Sukalde eta jatetxeetako hondakin biodegradagarriak:	Barazki eta fruitu hondar gordinak
	Janari prestatu- eta ogi-hondarrak
	Haragi- eta arrain- hondarrak
	Arrautz -oskolak, mariskoa, fruitu lehorrak eta fruitu hezurak
	Jogurt eta zuku iraungiak
200201 / parke eta lorategietako hondakin biodegradagarriak:	Kafe- eta infusio-hondarrak
	Belarra eta hosto lehorrak
	Moztutako adarrak
	Lorategietako belar hezea eta landare hondakinak

200101 / Papel y cartón:	Papel de cocina libre de tinta (sin estar sucio de detergente u otros jabones)
200108 / Residuos biodegradables de cocina y restaurantes:	Restos crudos de verduras y frutas
	Restos de comida preparada y pan
	Restos de carne y pescado
	Cáscaras de huevo, marisco, frutos secos y huesos de fruta.
	Yogures y zumos caducados
200201 / Residuos biodegradables de parques y jardines:	Restos de café e infusiones
	Hierba y hojas secas
	Ramas de poda
	Hierba húmeda de jardines y restos de plantas

10. artikulua. Konpost-gailuetan konpostatu ezingo diren biohondakinak.

Konpostajerako instalazioetan ezingo dira konpostatu ondorengo taulan (LER kodearekin) azaltzen diren etxeo biohondakinak:

Artículo 10. Tipos de biorresiduos domésticos que no podrán compostarse en los compostadores.

En los puntos de compostaje no podrán compostarse los biorresiduos domésticos que aparecen en la siguiente tabla (con el código LER):

200101 / Papera eta kartoia:	Egunkariak eta paperak
	Kartoiak
	Komuneko eta sukaldeko paperen tutuak
200302 / Merkatuetako hondakinak	
020103 / Landare ehunen hondakinak	
020106 / Animalien gernu eta gorotzak (lasto ustela barne) eta selektiboki biltzen diren eta sortzen diren tokitik kanpo tratatzen diren efluenteak.	
020107 / Basogintza hondakinak	
020202 / Animalia ehunen hondakinak	
020501 / Esnekiak egiteko industriatik eratorritako hondakinak elaborazio eta kontsumorako egokiak ez direnak	
020601 / Ongigintza eta gozogintza industriatik eratorritako hondakinak elaborazio eta kontsumorako egokiak ez direnak	

* Hautaketa hau egiteko, 1069/2009 Erregelamendua (EE) izan da kontuan, animalia azpiproduktuei eta gizakiek jateko ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuentzako arau sanitarioak definitzen dituena. Ordenantza honen I eranskinean prozesu honen bitartez konposta daitezkeen hondakinak biltzen dituzten artikulua jasotzen dira.

200101 / Papel y cartón:	Periódicos y papeles
	Cartones
	Los tubos de papel de cocina y papel higiénico.
200302 / Residuos del mercado	
020103 / Residuos de tejidos vegetales	
020106 / Orina y excrementos de animales (incluida paja podrida) y efluentes recogidos selectivamente y tratados fuera de donde son producidos.	
020107 / Residuos forestales	
020202 / Residuos de tejidos animales	
020501 / Residuos derivados de la industria para hacer productos lácteos y que no son adecuados para el consumo	
020601 / Residuos derivados de la industria para productos de panadería y repostería y que no son adecuados para el consumo	

* En esta selección se ha tenido en consideración el Reglamento 1069/2009 (EE) por el que se establecen las normas sanitarias aplicables a los subproductos animales y los productos derivados no destinados al consumo humano. En el anexo I se recogen los artículos del Reglamento donde se mencionan los residuos que se pueden compostar mediante este tipo de proceso.

11. artikulua. Hondakinen uztea.

1. Debehatua dago 9. artikuluan azaltzen ez den hondakinik, edonolakoak izanda ere, konpost-gunera eramatea.

2. Aldi berean, debehatuta dago konpostatzeko onartutako etxeko biohondakinak (9. artikuluan azaltzen direnak) konpost-gailutik kanpo uztea.

3. Etxeko biohondakinak soltean utziko dira konpost-gailu barruan, eta ez poltsatan sartuta.

4. Parte hartuko duten pertsonen etxeko biohondakin guztiak prestakuntza saioretan azalduko den bezala eta konpostatzeko gidan azaltzen den moduan utziko dituzte konpost-gailuetan, bertan azalduko diren pausak jarraituz.

5. Etxeko biohondakinak asteko edozein egun eta ordutan utzi daitezke konpost-gailuetan.

12. artikulua. Egituratzaila.

1. Udal parke eta lorategietako hondakin biodegradagarriak (Inausketa adaxkak eta hosto lehorrak) egituratzaile moduan erabiliko dira konpostaje prozesuan.

2. Egituratzaila parte-hartzaileentzako eskuragarri egongo da herrigunean jarritako konpost-guneetan bertan; horrezaz gain, udalerrian egituratzailea gordetzeko beste leku batzuk egokituko dira auto-konpostaje prozesua egingo duten parte-hartzaileentzat.

3. Udalaren ardura izango da egituratzailea erabiltzaileen esku jartzea konpost-guneetan edo udalerrian horretarako egokitu diren guneetan.

13. artikulua. Konpostaje-prozesuan bete beharreko baldintzak eta hartu beharreko neurriak.

1. Konpostaje prozesua deskomposizio fase aerobio batekin hasten da, sartutako etxeko hondakinen nahastearekin lortzen dena. Ondoren, heltze faseak jarraitzen du, fase honetan ez dira etxeko hondakin gehiago sartzen eta materialaren egonkortzea dakar honek.

2. Parte hartzaileak konpost-gailuan edo etxolaren atal batean hondakinak sartzen hasiko dira. Hauek guztiz betetzen direnean, konpost maisua arduratuko da konpost-gailua edo etxolaren konpartimendua giltzaz ixteaz, prozesua heltze fasean sartzeko. Momentu honetan, parte hartzaileek beste konpost-gailu batean edo etxolako beste konpartimendu batean hasiko dute berriro ere prozesua.

3. Heltze fasea bukatzean, konposta erabilgarri moduan egongo da, baina aurretik, kalitate kontrola badagokio, konpost maisua Sasieta Mankomunitatearekin harremanetan jarriko da, beharrezko laginak hartzeko eta konpostaren kontrolerako laborategi batera eramateko. Behin azterketa egin ondoren eta erabilgarria dela ziurtatzean, konpost maisuak giltzaz irekiko du konpost-gailua edo etxola eta parte hartzaileek konpost-gunetik bertatik hartuko dute behar duten konposta eta galbahetik pasako dute, kalitate hobegoko materiala lortzeko. Sortutako konpost kopurua eskaria baino handiagoa bada, Udala arduratuko da soberakina kudeatzeaz.

4. Prozesua pertsonen eragozpenik ez sortzeko moduan eta ingurumenean arriskurik ez sortzeko moduan egingo da. Horretarako, konpostaje baldintza egokietan egitea bermatu behar da, hauen artean prozesuan osoan zehar, baldintza aerobioak mantendu behar direla azpimarratuz. Baldintza horiek betetzeko, parte hartzaileek prestakuntza saioretan azalduko diren eta konpostatzeko gidaren arabera burutuko dute prozesua; konpost maisuak konpostaren nahastea egingo du eta baita

Artículo 11. Depósito de residuos.

1. Queda prohibido llevar al punto de compostaje residuos que no estén recogidos en el artículo 9 de esta Ordenanza, sean del tipo que sean.

2. Asimismo, queda prohibido depositar fuera del compostador los biorresiduos domésticos considerados aptos para el compostaje señalados en el art. 9.

3. Los biorresiduos domésticos se depositarán sueltos dentro del compostador y no en bolsas.

4. Las personas participantes depositarán los biorresiduos domésticos en los compostadores siguiendo las indicaciones que se ofrezcan en las sesiones de formación y en la guía para compostar que tendrán a su disposición.

5. Los biorresiduos domésticos podrán depositarse en los compostadores cualquier día de la semana y a cualquier hora.

Artículo 12. Estructurante.

1. Los residuos biodegradables de parques y jardines municipales (ramas de poda y hojas secas) se usarán como estructurante en el proceso de compostaje.

2. El estructurante estará a disposición de las personas participantes en el compostaje colectivo en los propios puntos de compostaje y se habilitarán otros puntos en el municipio con estructurante para las personas que realicen autocompostaje.

3. El Ayuntamiento será el encargado de poner a disposición de los usuarios y usuarias el estructurante en los puntos de compostaje o en los puntos habilitados a tal efecto en el municipio.

Artículo 13. Condiciones y medidas a adoptar en el proceso de compostaje.

1. El proceso de compostaje comienza con una fase aerobia de descomposición que se produce al mezclar los residuos domésticos depositados. A continuación, prosigue con la fase de maduración; en esta fase no se depositan más residuos y el material se va estabilizando.

2. Las personas participantes comenzarán aportando residuos en uno de los compostadores o en un compartimento de la caseta. En el momento en que éstos se llenen por completo, el/la maestro/a compostador/a se encargará de cerrarlos con llave para que pueda comenzar la fase de maduración. En este momento, las personas participantes comenzarán un nuevo proceso aportando residuos en otro compostador o en otro compartimento de la caseta.

3. Al finalizar la fase de maduración, el compost estará listo para ser utilizado pero, antes, cuando proceda realizar el control de calidad, el/la maestro/a compostador/a se pondrá en contacto con la Mancomunidad Sasieta para que recojan las muestras necesarias y las trasladen a un laboratorio de control. Una vez realizado el análisis y conocida la calidad del compost, el/la maestro/a compostador/a abrirá el compostador o la caseta y las personas participantes podrán coger el compost que necesiten tras lo cual procederán a pasarlo por un tamiz para conseguir un material de mejor calidad. Si la cantidad de compost obtenida es mayor que la demanda existente el Ayuntamiento se encargará de gestionar lo que quede.

4. El proceso se deberá llevar a cabo sin generar molestias a las personas ni impactos sobre el medio ambiente, para ello es necesario garantizar que el compostaje se realice en las condiciones adecuadas, destacando entre ellas la importancia de asegurar el mantenimiento de las condiciones aerobias durante todo el proceso. Para cumplir estas condiciones, los participantes llevarán a cabo el proceso siguiendo las indicaciones ofrecidas en las sesiones de formación y en la guía para compostar

beharrezko jarraipena ere eta Udalak eta/edo Sasieta Mankomunitateak konpostajea baldintza egokietan burutzeko, beharrezko baliabideak eta tresnak jarriko ditu eta jarraipena egingo du.

14. artikulua. Jarraipen lanak.

1. Izena eman duten pertsona guztiak egingo dituzten konpostaje prozesuko lanen jarraipena egingo da aldian behin, auzo-konpostajea nahiz auto-konpostajea izan.

2. Udalak eta/edo Sasieta Mankomunitateak beharrezko baliabideak jarriko ditu jarraipen hori egiteko.

3. Aldian behin neurtu edo behatu beharreko gutxieneko parametroak ondorengoak dira:

- Temperatura.
- Hezetasuna.
- Material lehor/material heze proportzioa.
- Aireztatzearen aldizkakotasuna.

IV KAPITULUA
LORTUTAKO KONPOSTAREN KALITATEAREN
KONTROLA ETA ERABILERA

Kapitulu honetan zehazten diren neurriak Legazpin auzo-konpostajearen bidez lortutako konpostari aplikatuko zaio.

15. artikulua. Kalitate kontrolaren helburua.

Konpostaren kalitate fisiko, kimiko eta biologikoa ezagutu behar da konpost egonkor eta higienizatua dugula ziurtatzeko eta bere erabileran gizakiaren osasunean eta ingurumenean kalterik ez sortzeko.

16. artikulua. Kalitate parametroak.

1. Legazpiko konpost-guneetan lortutako konpostak ongarriei buruzko araudia bete beharko du kalitatea bermatzeko, hau da, araudiko parametro fisiko-kimikoak beteko ditu eta ez ditu araudian jasotako mikroorganismo eta metal astunen muga maximoak gaindituko, Ordenantza honen 2. Eranskinean ezarritakoaren arabera. Gaur egun indarrean dagoen araudia 506/2013 Errege Dekretua da, eta araudi hori hartuko da kontuan baita horren ondorengo aldaketak ere.

2. Lortutako konpostak artikulua honetan aipatutako parametroak betetzen ez dituztenean hondakin bihurtuko da, eta kasu honetan Udalaren eta/edo Sasieta Mankomunitatearen arduraz izango da hondakin horren kudeaketa egokia egitea.

17. artikulua. Analisisien maiztasuna.

Udal lur publikoetako eta pribatuetako guneko bakoitzean auzo-konpostaje bidez lortzen den konpostaren analisisa egingo da konpostatze zikloaren amaieran. 5 urtetan lortutako konpostak kalitate-parametroak betetzen baditu, analisisa hori bi urtetik behin egingo da.

18. artikulua. Erabilera baldintzak.

1. Legazpiko konpost-guneetan lortutako konposta ezingo da ondoren komertzializatuko diren produktuen ongarri gisa erabili.

2. Udalak eta/edo Sasieta Mankomunitateak analisisiek emandako emaitzen arabera jardunbide egokiak eta erabilera gomendioak zabalduko ditu konpost erabiltzaileen artean.

que tendrán a su disposición; el/la maestro/a compostador/a realizará la mezcla del compost y el seguimiento del proceso y además, el Ayuntamiento y/o la Mancomunidad Sasieta, pondrán a disposición del proceso los recursos, utensilios, tareas de seguimiento necesarias.

Artículo 14. Seguimiento.

1. Se realizará el seguimiento periódico del proceso de compostaje llevado a cabo por las personas inscritas, tanto si hacen compostaje colectivo como autocompostaje.

2. El ayuntamiento y/o la Mancomunidad de Sasieta dispondrán de los recursos necesarios para llevar a cabo el seguimiento.

3. Los parámetros mínimos que se medirán o examinarán periódicamente son los siguientes:

- Temperatura.
- Humedad.
- Proporción de material seco/material húmedo.
- Periodicidad de aireación.

CAPITULO IV
CONTROL DE LA CALIDAD DEL COMPOST
OBTENIDO Y SU UTILIZACION

Las medidas establecidas en este capítulo serán aplicables al compost obtenido a través del compostaje colectivo realizado en Legazpi.

Artículo 15. Objetivo del control de calidad.

Se debe controlar y conocer la calidad física, química y biológica del compost para garantizar que se obtiene un compost estable e higienizado de manera que su uso no sea perjudicial para la salud de las personas ni para el medio ambiente.

Artículo 16. Parámetros de calidad.

1. El compost obtenido en los puntos de compostaje de Legazpi deberá cumplir lo establecido en la normativa sobre productos fertilizantes, es decir, cumplirá los parámetros físico-químicos establecidos y no superará límites máximos de microorganismos y metales pesados recogidos en la normativa de conformidad a lo dispuesto en el Anexo 2 de esta Ordenanza. En la actualidad, la normativa en vigor es el Real Decreto 506/2013 (EE) y se tendrá en cuenta esta norma así como sus modificaciones posteriores.

2. Cuando el compost obtenido no cumpla los parámetros establecidos se tratará como residuo. En este caso el Ayuntamiento y/o la Mancomunidad de Sasieta serán las entidades responsables de gestionar adecuadamente este residuo.

Artículo 17. Frecuencia de los análisis.

